

GAZTE NAIZ

Eskozia'ren eta Gales'en iratzarpena

E G I A

Europa'ko aldizkarietan azaldu da berria: Eskozia'ko eta Gales'ko abertzaleek hiru hiritan irabazi dute postua, lehenengo aldiz, azkeneko aukeraketan: Pollok'en, Rhondda'n eta Hamilton'en. Gertaera hau Zeruko Argia'n ere izan da aipatua.

Baia mamitsuago eta aztergarriago da gertaera, nik us-te, irakurleak soma dezakeana bai: hiru leku horietan bertako abertzaleak nagusitu zaizkie «Labour»-zaleei (sozialistek, beraz); eta hau ez da gertatu atzeratutako eskualdetan, langilerik gabeko lekutan, aurreratu eta industriadun eskualdetan baizik.

Sozialista zaharrak txupndituta daude, noski. «Labour»-Alderdiak hiru puntutara bildu du betidanik bere eginkizuna:

- 1) Denen bizi-maila goratu.
- 2) Breña Nagusia guztiz bat egin ugarte guzian barrena, eta eresuma bakar hortako ondasunak Londres'en ahalik eta burutsuenik banatu.
- 3) Atzerakoi-keriei, eta «aberrikeriei» bereziki, uko guztizkoa egin: sasi-problema besterik ez diran horiek zapuztu.

Hau dala-ta, sozialistak izan dira Eskozia'n eta Gales'en (Finlandia'n bezela) bertako kulturaren kontra jo-ta-ke zurrukatu duten lehenengoak: Eskozia'n eta Gales'en ez dira eskuindarrak atzerrizaleenak (ingles-zaleenak batez ere), «Labour Party»-ko «ezkertarrak» baizik. Zaharren artean batez ere.

Hiru hiri horietan gertatu dana, beraz, guztiz zate uletu-eziña laboristei, laborista zahar eta erdi marxistei batez ere.

Baia ulertu ezina izanik ere, gertaerak eta egiñak hor daude; eta distillu hau gabe ere Labour Party'ren egoera aski larria dan ezker, atsegiñez ez bada ere arreta handiaz hortu dute agintariak gertaera hitza; eta Harold Wilson'ek berak, dirudienez, Eskozia'n eta Gales'en deputatu gehiengo gorde ahal izateko, bi Parlamento, bi Herri-Corte, sortu nahi bide ditu: bata Eskozia'n eta bestea Gales'en. Herri-Corte hauek bertako eginkizunak zuzenduko lituzteke goitik behera; erresuma-ekonomia, armada eta atzerriar politika Londres'en utzirik.

Zer da hau proposatzea? Zer adierazten du, batez ere? Eskozia'ko eta Gales'ko dinamika, bultzada nagusia hitz batez, ez datzala gaur klase burruka huts koloregabean, ez datzala sozialismo abstrakto eta aberrigabe batean, nazio burrukan eta etnia burrukan baizik. (Aztarketa berbera meriziko luteki India'ko gertaerak, «hindi» eta «bengali» hizkuntzak dirala bide). Wilson'ek partida galdu nahi ez duelako, eta abertzaleen artean indarrak oharatu dalako, bi «Mi-

ni-Parliament» horiek sortzeko erabakia hartu bide du. Ez bide du beste biderik ikusten.

Irakurleak dakien bezela, bai Eskozia eta bai Gales, Irlanda eta Breña bezela, «zeltarrak» dira jatorriz. Eskozia'ko «erse» dalakoa ia aittuta dago gaur herri xehean (Hebridetan ezik), nahiz eskoziar abertzaleen artean, gonaz eta folkloreak asperturik, lantzen eta berpizten hasia da ere. Gales'ko «galiera», ordea, nahiz atzeraka ere herri xehean, hizkuntza bizia da eskualde zabaletan (zazpirehun bat mila hitzun, gehienak bi-mintzodunak); eta azken urte hauetan urrats handiak eman ditu legetasunaren aldetik eta Unibertsidadean. Lehenengo aldiz, bestetik, puntuzkoak galieraz mintzo dira Gales'en, eta herri xehe ingleseraz gero eta nabarmenago (guztiz bestaldera, jakina, joan dan mendeen). Hitz batez: Eskozia'n eta Gales'en bi zeltar etnia daude. Eta bi abertzale mogimendu sortu dira azkeneko urteetan, gero eta indartsuagoak. Azkeneko berriak abertzale mogimendu horien ekarriak dira. Horra hor Eskozia'ko eta Gales'ko Kondairaren joera.

Hori dala-ta, zer gertatu da «Labour Party»-ren barnean?

a) Sozialista zaharrak eta atzerakoiak, ingles chauvinismo hutsen, «txatxukeria» horietaz ez dute hitzegin ere nahi, eta herririk urrundu dira: botoak lekuko. Willie Ross, esate baterako, sozialista zahar gehienen izenean, odonolako «aberrikeria» guzian kontra jokatu duela jakinarazi du arki eta garbi, eta «berezikeria» guziak, agirikoak eta izkutuak, ezesten dituela.

Hunen kontra, ordea, eskoziar John Mackintosh irakasleak («mealy-mouthed niggler» huts bat... Willie Ross'en ustez), eskoziar abertzaleen artean indarrak eta zuzenaz ongi konturatutik, eta eskoziar gazte aurrerazaleen izenean, Alderdiaren jokabidearen aldakuntza eskatu du; eta Teletistaz Askatasun handiagoa Eskozia'rentzat.

Hitz batera bilduta, eskoziar sozialista zaharrak Breña Nagusian nahi zuten sozialismoa, inglesen modura, eskoziar kulturarik lanta eta kontra, Eskozia'ko nazio-baloreak ukatuz; eskoziar sozialista gazteak, aldiz, Eskozia'ko nazio-kulturan eta askatasunean nahi dute sozialismoa.

b) Gales'ko eta Eskozia'ko nazio-eskubideen kontrako etsairik amorratuena eskoziar sozialista «inglesdunak» dira. Willie Ross dalakoa, gogorretan gogorrena, eskoziarra da. Gales'tan izenean Clewyn Hughes'ek Gales'entzako gobernu bat eskatu duenean, bi zeltar etnien arteko alkatasunaren kontra mintzatu diranak eskoziar sozialistak izan dira, Ross buru. Eresuma baterakoi eta inglesak eskoziar sozialista horietan du gaur habe nagusi bat.

LARRESORO

AGUR ETA ONGI-ETORRI

Idaztera ninjoan une onetan 1967'ko azkeneko minutuak poliki-poliki badijoaz ta idaz-lantxo au bukatu baño len amaitua izango da.

AGUR URTE ZAR

Orsin lasai-lasai eserita urte guztiko azterketa bat egi-tea oso atsegin zait: Rurreruntz egindako pausok, ta atzerakok, pozak eta atsegiñak, lasaitasun ed larritasunak.

Urte-bete geiago bizita... bat gutxiago bizitzeko ta... 365 egunek eman oi duten esperientzi sakona gure barne-eratio sartuta.

Zenbat amets zapuztuta? Zenbat asmo erorita? Zenbat egun-bearreko egin gabe? Zenbat etsai usteko lagun eta... lagun usteko etsai?

Egi gutxi agertuak, edo izkatuta, ixildu diralako edo, ta, zenbat aldiz? Erdizka esan diralako, konponduta, multi-ziz jostia. Eta onela zenbat egi izeneko bezur, bai izparrin-gietan, bai iratietan ta teleikusiñean berdin; billeretan, lagun-artean eta ez-diranen artean ere, zer esanik ez!

Urte guztiko egiak (?) galbara baten jarriko bagenituzke, zenbat psiko lirake bere sare estuan egi egituzkoak, osoak, zintzoak lez?

Orain 1967 onti esker ezagutzen ditugu ta badakizu nola jokatu.

Urtea igaro da ta mesede izugarri bat opalduaz agurtu gaitu: esperientzia.

Urtean baño urtean ziurrago babiltz. Badakigu zer bideri eldu ta zerru utzi.

Urtero-urtero kontu pixkat izan ezker poliki-poliki ongari etzaizkigun bideak bazterten joango gera. Onek gure izateari mesede izugarria egin oi dio, zerbait ezagutzean ona txarretik bereztu dezakegulako. Bein bide zuzena aukeratu ezker an zear joatea naiz eta oso zaila izan ezta eziñezkoa.

Gaur egun, dena ain illun dagon garaian, urte zarra agurtu ta berriari ongi-etorri ematen gogoan izan bear degu azterketa bat egiñaz urte buruan izan ditugun ueste-gabeko gertakizunak gogoratzea. Mesede izugarria egingo bai-liguke.

Ongari gabeko ametsak, biderik gabeko asmoak, eskuak ezarri nai izan ez dizkiogun lanak, adiskide etsaiak, zenbat? Kontuz Urte-Berri onetan! Ez gaitzen akats berdiñetan erori. Lengo urteak. Eman digun esperientziak lagun deigula.

Ongi etorri urte berri, zuk eskeñi bear dizkiguten bi-deetan zear ibiltzeko prest gaituz.

365 egun (J. L.) urte berri onetan bizitzeko. Bakoitza bere kondairarekin ta persona bakoitzarentzat ez-berdiña. Denok degu zer ikasi aundia. Egun bakoitzak eskeintzen diguna begiak itxi gabe ikusi ta ikasi dezagun, onuragarri izango batzaigu.

ITZIAR BIKENDI

Artikulu au argitaratzekoan pasia izango da Errege eguna, aurrentzat dakarren poz eta desilusio guziekia.

Bein bañore geiagotan aizeratu da gai au, aurraren barrerean utzitzen duan injustizi sendimendua asterturik.

Beste alderdi bat, nere iritziz sakonena, ikutu nai nuke gaur nik.

Aurrak ekilibrio on batean desarrollatzeko ilusioak bear ditu: janaria bañore premi aundiagokoa du ametsa, orre-gatik du bere izakeraren muñean neurrigabeko Imajinarioa.

Errege festaren izatea (Aurren festa beren errege, morroi ta erregaluagatik diot, noski) ta beste mito askorena aurraren izakera onan oiñarrituak daude zalantzarik gabe. Bañan ilusioak gezurretan finkatuak diranean ez dira onak iñorentzat.

Orrekin konfiantza gutxi al daukagu errealitatearen edertasunean, beraz utzirik, aurrentzat ere, mitoak asmatu edo asmatuta daudeneri indar eman bearrean izateko?

Bai, pertsona larriak gure errealitatetik iges egiten iaioak gerala ongi demostratzen dugu. Bañan aurrak ez du olakoren bearrik bizitzeko ta bere amets izakera asetzeko.

Sikologo ospetsu batek zionez, aurrak, egiak askoten ipui biurtzen ditu. aBañan bere aurtzaroa igarotzen danean, eta ipuiak errealitateari tokia utzitzen asten danean, egian oiñarritutako ametsak ba-dira, egi gelditzen da ta gaztetxo izaten asitzen ari dan orrek ez du idea aldatu bearrik izango.

Aurra ilusio beterik jartzeko gezurren bearrik ez degu, egiarekin berdin lortu bait diteke aurraren poza ta beste guzientzat bezela aurrarentzat ere egia ongari besterik ezin diteke izan.

Beraz, aurrentzat ere, egi eskatzen degu. Maitasunak eragindako poesiz jantzitako egia.

E. SENOSIAIN



inter
radio **tv**

Saltzaillea:

CENTRAL DE MATERIALES ELECTRICOS S. A.

Beste edozein markakoa baiño
lru aldiz berriago ta gaurkoagoa

Ordaintzeko erreztasun aundiak